



ITUNA: ARGI GORRIA / LOTSA URRIA

Dagoeneko hilabete bat bete da Kalitaterako Ituna sinatu zenetik, eta honek balorazio bat eskatzen du.

Martxoaren 28an Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamenduak itun berri bat sinatu zuen Hezkuntzako hainbat sindikaturekin: AFAPNA, CCOO, STEE-EILAS, UGT, CSIF. Bere garaian plazaratu genituen arrazoiak direla eta, gure sindikatuak, LABek, ez zuen sinatu. Ez sinatzeko arrazoiak artean, zehaztapenik eza zegoen. Itunean jasotzen diren puntu asko inongo konkreziarik gabe zeuden, hots, indarrean jartzeko hartu beharreko neurriak zehaztu gabe. Gure ustez, horrelako zehaztapenik gabe ezin izango dira indarrean jarri.

Hilabete bat pasa denean, badaude dagoeneko betetzen ez diren hainbat puntu. Hona hemen adibide batzuk:

- **Irakasleen lanaren duintasunaren aldeko kanpaina** 2007-08 ikasturterako aurre matrikulazio kanpainarekin batera egin behar zen. Matrikulazio kanpaina pasa egin da eta irakasleen aldeko kanpaina egin gabe gelditu da. Zer egingo diogu, beste batean izan behar!
- **Urte sabatikoak:** Heldu den ikasturtean (2007/08) indarrean jartzeko, dagoeneko arautegia egina egon behar zen eta ez dago. Beraz, hurrengo ikasturtean eskatzeko asmoa zuen orok urte batez atzeratu beharko du. Honek beste ondorio bat dakar: **Aukera gutxi zuen jendeari aukerak murrizten zaizkio.** Hau miseria!
- **Lan-orduen murrizketa:** Plantillak egiten ari dira eta ikastetxeetan neurri hau ezin aplikatuz dabilta. Hau indarrean jartzeko ezin bestekoa da plantilak handitzea. **Nola murriztuko zaizkie lan-orduak irakasleei (25etik 18,5era Haur eta Lehen Hezkuntzan eta 18tik 17ra Bigarren Hezkuntzan) Eskolak ez badu baliabide gehiagorik? Nork egingo ditu zaintzak? Nola hartuko dituzte dagozkien orduak 55 urte baino gehiago duten irakasleek?... Horretarako dirua behar da eta ez dago horrelako aurreikuspenik**
- **Plantilak gartzetzeko neurriak,** ikasturte hau bukatu baino lehen proposamen bat egin behar zen jubilazio saria handitzeko. Dakigunez, ez da ezer egin eta ez du ematen ezer ez egingo denik. Beraz, lehen bezala gaude.
- **Irakasle ibiltarien lan-orduak murrizteko neurriak.** Nola eramango dira aurrera kontratazioak handitu gabe?
- **Aniztasunari erantzuteko neurriak** ezin izango dira indarrean jarri plantilak handitu gabe.
- **Noizko** zailtasunak dituzten lanpostuen definizioa? Hau aurreko itunetik dator eta ez dute zuzentzeko ahaleginik egin.
- **Jardunaldi malgua:** Departamenduak atera berri du hori arautzen duen ebazpena, eta zer ikusi dugu? **Iruzurra! iruzurra, bai irakasleentzat zein gurasoentzat.** Baina kontuz! Sindikatuek saldu ez diguten neurri berri bat ere badugu: **Horrelako ordutegiren bat indarrean jartzeko, zuzendaritzak arratsalde irakasle bat, gutxienez, egongo dela bermatu beharko luke.** Hau bai ederra!

Hala ere, bada indarrean jarri den gauza bat: ikastetxe elebidunen (gaztelania eta ingelesa) sustatzeko konpromisoa. Honetan notarekin gainera, bikain bat jarriko diogu UPN-ri.

Laburbilduz, lehen bezala aurkitzen ez bagara are eta okerrago gaudela. Gaztelaniaz esaten den bezala: *"Pa este viaje, no necesitábamos alforjas"*.

**Nafarroa**

Gu ez gara horretaz ohartu garen bakarrak, ezta pentsatu ere! Are gehiago, sinadura eman baino lehenago, sinatzaileek ere bazekiten gauza asko (gehienak) ezin izango zirela indarrean jarri, baina hala eta guztiz ere, sinatu egin zuten, euren interesen onurarako. Behin eta berriro langileen interesak bazter batean gelditu dira. Zer esaten dute orain? Bere burua ezkertiarizat jotzen duen sindikatu bati zera entzun genion: " Itun honekin eskola publikoak dituen gabezi guztiak beteko dira" Hauxe gure galdera: Nola? Gobernu fatxa baten jarduera eta asmoak legitimatzen duen itun baten bitartez?

Honen harira, ezin dugu gainera pasa STEE-EILAS sindikatuaren web orrian agertzen den artikulua: Argi gorria: ituna. Antza denez puxika husten hasia da, martxoaren bukaeran harrokeria zena, orain huskeria bilakatu da.

Ez dugu uste STEE-EILAS bezalako sindikatu bat gertatutakoarekin harritu denik. Ez al zekiten hori gertatu behar zela? Nahikoa argi gelditu zen aurreko paktoarekin, paktoan bertan lotu ez zena, lotu gabe gelditu da sekula santurako. Itxurak gordetzen ari direla iruditzen zaigu.

Baina benetan zur eta lur utzi gaituena zera da: STEE-EILAS sindikatuak ikastetxe eta irakasleen esku uzten duela honen aldarrikapena eta borroka. Hori bai kopeta! Hau sinatzaileen lana da, sinatzaileek hitzartu zuten eta sindikatuei dagokie indarrean jartzea. Ezin dute euren erantzukizuna besteen lepo jarri.

Non daude CCOOkoak? Akaso neguko jauregietan? Nafarroako Parlamenturako kanpainarekin batera joan al dira.